

BALIO PROPOSAMENA:

Gure produktuaren onurei dagokionez, alde batetik, produktuen **entrega epe laburrean** burutuko da, zehazki, **EAEko eskaria bada 24-48 ordu** eta **Espainia mailan bada 2-3 egun** inguru. Produktuen prezioari dagokionez, **merkeena 5€** izango da eta **garestiena 40€** izango da. Horrez gain, gure produktuak **seguruak** izango dira haurrentzat, izan ere, homologatuta egongo dira eta beraien segurtasuna bermatuko dute.



Bestalde, gure produktuen bidez **jasangarritasuna bermatzen** da, zehazki, **materialen berrerabilpena sustatuz**. Honela, kutsadura gutxituko dugu eta kontsumismoa ekidingo dugu. Nola ez, eskaintzen ditugun produktuek **alderdi pedagogikoa** edukiko dute, zehazki, ezagunak diren pedagogietan oinarrituko gara, besteak beste, Pikler, Montessori, Malaguzzi eta Waldorf.



Amaitzeko, **barne-hartzea sustatuko** dugu, izan ere, enpresako lan eskaintza behar bereziak dituzten edo gizartean baztertuta dauden kolektiboek eskainiko zaie, zehazki, **EMAUS** fundazioko pertsoneri, beti ere, hauen laneratzea bultzatuz.